



## Txapela, Arakilera

Etxeberria-Zabaleta vs Altuna-Martija, lehia amaigabea espero da Nafarroa Arenan / 2-3




Klinikako ospitalea handitzeko lanak hasita / 5

**Lanbide Heziketa institutuak ikasketa berria eskainiko du heldu den ikasturtetik aurrera / 6**

SINADURAK




RAF ATXURI / 4



OIHANE AGIRRE ULAIAR / 4

**Altsasuko Duatloia jokatuko da bihar: haurrak goizean, eta helduak arratsaldean; 210 duatleta guztira / 9**

**Etxarri Aranazko pilotalekuak Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak hartuko ditu / 10**



ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

**Delirium Tremens taldearen kontzertua izanen da bihar, Lakuntzako kultur etxean / 15**



Jose Javier Zabaletak finalean du burua. ASPEPELOTA

## "Finala txapelketako partidarik gogorrena izango da"

JOSE JAVIER ZABALETA LASA PILOTARIA

Etxarrengoak Altuna eta Martija ikusten ditu faborito

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARREN  
Binakako hasierako ligaxkan bigarren izanda, eta finalerdietako ligaxkako hiru partidak irabazita iritsi zarete Binakako finalera. Zer nolako sentsazioarekin zaude?

Momentu onean gaudela, sentsazio hori dut. Azkeneko partidatan gure benetako maila ematea lortu dugu, eta nik uste dut konfiantzarekin gaudela. Ongi entrenatzen segitzen badugu, ongi iritsiko gara finalera.

**Eskuin izterreko koadripesean gainkarga izan zenuen. Guztiz errekuperatuta zaude?**

Haustura bat izan nuen Jakaren eta Eskirozen kontrako partidatan. Bizpahiru aste justu ibili nintzen, partida bat ere ez nuen jokatu, baina hortik aurrera oso ongi sentitzen naiz. Osatuta nago.

**Jakak eta Mariezkurrenak irabazi zuten hasierako ligaxka, eta finalerdietan kanpoan geratu ziren.**

Halako txapelketa batean ez du balio hasieran partida asko irabaztea gero finalerdietan ez baduzu irabazten. Gu txapelketa osoan zehar nahiko berdintsu ibili gara, erregular, baino esango nuke azkeneko partidatan hobeki aritu garela.

**Peio Etxeberriak baja egin zuen finalerdietako azken partidatan, eskuak pixka bat justu zituelako. Finalerako ongi egongo da?**

Bai, inolako kezkarik ez. Aste honetan bertan ongi egongo da, %100ean entrenatzeko moduan. **Zabalarekin ongi aritu zinen Labriten. Bikote ederra osatzen duzue. Javi horrenbesteko konfiantzarekin dagoenez, gauzak erraza**

# Nork jantziko

**PILOTA** Nafarroa Arenak Binakako final handia hartuko du martxoaren 31n. Peio Etxeberria eta gogorra espero da, eta katedrak ere ez du faborito argirik. Zabaleta eta Martija arakildarrak dira,

goak egiten dira berarekin jokatuz gero. Gustura jokatu nuen berarekin; gainera, irabazi, eta garaipen horrek finalerdietara iristeko konfiantza eman digu. Une honetan onenen artean ibiltzeko maila erakutsi du Javik.

**Martxoak 31, Nafarroa Arena, Binakako finalean Altuna eta Martija aurkari. Finalerdian partida izugarri gogorra jokatu zenuten euren kontra, eta zuek gailendu zineten, 14-22. Antzeko partida espero duzue, luze eta gogorra?**

Partida hori oso gogorra izan zen hamabigarren tantora arte, baina finalerdietako partidarik gogorrena Artolaren eta Imazen kontrakoa izan zela uste dut. Nolanahi ere, finala txapelketako partidarik gogorrena izango dela espero dut. Binakakoa aurkezpenean Altuna eta Martija jo nituen faborito, eta finalera iritsi dira. Elkarrekin oso gustura jokatzen dute, oso ongi elkar ulertzen dute.

**Baina zu eta uanean uneko zure bikotea beti faboritoen kinielan zaudete. Hala erakutsi duzu, Binakako bost txapela jokatuta, lau txapela dituzulako. Faboritoen artean egoteko presioak eragina du?**

Momentuz pozik nago egindako lanarekin. Azkeneko urtetan finalerako iristen ari naiz. Horretarako prestatzen naiz, eta alde horretatik lasai nago. Presioa gutxitan nabaritzen dut, ohituta gaude halako partida zailak jokatzen. Finalerako beste bat izango da, baina hala ere txapelketa partidarik gogorrena izango delakoan nago. Ea prest gauden eta mailarik onena ematen dugun. **Altunaren eta Martijaren kontrako finalerdian Peio Etxeberriak pauso bat eman zuen aurrera, erasokor**

**aritut. Hori izan daiteke finaleko gakoetako bat?**

Batzuetan Peioren erritmo aldaketa horiek behar ditugu, baina hori partidatan zehar ikusi beharra dago, eta zuek aldatu behar bada, partidatan aldatu, eta beste modu batera jokatu. Finalerdiko partida horretako hasiera oso gogorra izan zen, eta bigarren zatian, beraiek pixka bat nekatu zirenean, Peio gehiago sartzen hasi zen eta min handia egin zien. Ikusiko dugu finala nola ateratzen den. Ideia batzuk argi izan behar ditugu, baina momentuan ikusiko dugu nolako partida ateratzen den eta zer egin beharko dugun.

**Martijak eta Altunak ikusgarri jokatuta zuten, Artola eta Imaz finalerako kanpo utzita. Hala daudenean beraiei aurre egitea oso zaila da. Bai, oso. Azkenean, bikote faborittoa da. Gauzak ateratzen bazaizkie, aurkarietzat beti oso zaila izaten da eurei aurre egitea. Ziur dakiguna da txapela Asperendako izango dela eta Sakanan geratuko dela, Arakilen. Lagun asko partekatuko dituzue Martijak eta**

**"MOMENTU ONEAN GAUDE, SENTSATIO HORI DUT. ONGI ENTRENATZEN BADUGU, ONGI IRITSIKO GARA"**

**"TXAPELAK ARAKILERA IRISTEN ARI DIRA. NIK EZ BADUT IRABAZTEN, NAHIAGO DUT BERAK IRABAZTEA"**

**biok. Arakילו jende askok bihotza erdibituta izango du.**

Bai, lagun asko konpartitzen ditugu. Azken urtetan txapelak Arakilerira iristen ari dira, eta oso pozik nago. Ni ez banaiz, Martija izango da txapelduna. Nik ez badut irabazten, nahiago dut berak irabaztea.

**Bosgarren txapela lortuko bazenu, errekor bat apurtuko zenuke, bost txapelak bost pilotari ezberdinekin irabaziko zenituzkeelako: Irujo (2013), Ezkurdia (2018), Elezkano (2021), Elordi (2023), eta gailenduz gero, Etxeberria.**

Zintzoki, ez dut horretan pentsatzen, bosgarren txapela hori horren urruti ikusten dudalako... Horiek txutxumutxuak dira. Ikusiko dugu finalean zer gertatzen den. Dena den, hala gertatuko balitz, oso pozik nengoke. **Txapelketa honetako beste ezagurrietako bat frontoietan bildu den jendetza izan da. Altunak esan du ez duela inoiz Binakakoan horrenbeste zaletu ikusi. Zer gertatu da?** Ados nago Altunarekin. Nik ere orain arte Binakakoan ez ditut frontoia horrela inoiz ikusi. Eta egunero izan da, frontoi eta herri guztietan. Jendea gustura joaten ari da frontoira eta pilotariek hori nahi dugu, pilotazaleek gozatzea. Disfrutatzen badute, gu ere etxera pozik goaz. **Finala galduta edo irabazi, Etxarren festa.**

Aurten ez dugu beti bezala Etxarrengo Iratzarren ospatuko. Peiok proposatu zidan ospakizuna elkarrekin egitea, eta biak gertukoak garenez, Iruñean ospatuko dugu elkarrekin, frontoitik gertu. Espero dut besteren batean Etxarrenen berriz ospatzeko aukera izatea.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



# du txapela?

Jose Javier Zabaleta, batetik, eta Jokin Altuna eta Julen Martija, bestetik. Final estua eta lagunak, eta inguruko guztiek bihotza erdibitua dute. Beraz, onenek irabaz dezatela

M.B.G. ETXEBERRI

**Aurreko astean hil ala biziko finalerdia zenuten jokoan Altunak eta biok. Astebete barru, Artolari eta Imazi 22-9 irabazita, Binakako final handian zaudete. Eta zuk nahi bezala, hasieratik aldea ateraz. Sekulako errezitaldia eskaini zenuten.**

Aurretik esan nuen moduan, oso garrantzitsua zen hasieratik aldea ateratzea. Uste dut Jokin eta biok partidaren oso sartuak egon ginela. Jokin oso ongi dago, agerikoa da; uste dut ia-ia %100ean dagoela. Ni ere ongi nago, konfiantzarekin, eta oso gustura jokatzeko. Sentsazioak oso onak izan ziren. Tentsioa nabaritzen nuen, baina halako partidetan beti egoten da, eta tentsioa ongi eramaten jakin behar da. Tanto batzuk defendatu behar izan nituen, eta uste dut ongi erantzun nuela. Bikote gisa oso ongi jokatu genuen hasieratik, eta finalera konfiantzarekin goaz.

**Txapelketan materiala izan da hizpide. Jaka eta Mariezkurrena hainbatetan kexatu ziren.**

Txapelketan denetarik izan dugu: pilota biziak, motelagoak... eta pilota guztiekin jokatu behar da. Batzuetan pilota batzuk ez zaizkizu gustatzen, baina beste batzuetan aldrebes gertatzen da. Mota guztietako pilotak izan ditugu, eta orokorrean jokatzeko onak izan direla esango nuke; ez dugu inongo arazorik izan. Pilota jartzailea denetatik jartzen saiatzen da. Finalerdietakoak aspaldi jarri ziren. Agian frontoian 15 gradu zeudela aukeratu ziren, eta partida egunean agian 30 gradu zeuden. Beraz, pilota ere aldatzen da. Pilotak jartzea ez da erraza, eta horregatik ez zait kexatzea gustatzen. Finalekoak ere aspaldi jarri zituzten, finalistak nortzuk ziren jakin gabe, eta datorren astean aukeratu ditugu.

**Martxoak 31, Nafarroa Arena, Binakako final handia. Arerioak, Peio Etxeberria eta Jose Javier Zabaleta. Euren kontrako finalerdi latzean**

**14-22 galdu zenuten. Finala ere horren gogorra izango dela aurreikusten duzu?**

Ezetz espero dut, partida hori oso gogorra izan zelako. Partidak gogortzen direnean pilotak ere higitzen dira, eta orduan askoz ere zailagoa izaten da tantoa egitea; ondorioz, partidak asko luzatzen dira. Finalerdian Zabaleta eta Etxeberriak asko jokatu zuten; Peio ere sekulako partida egin zuen. Txapelketan elkarren kontra jokatu hiru partidak eurek irabazi dituzte, eta hori zerbaitegatik da; bikote ona egiten dute, eta oso ongi iritsi dira finalera. Beraz, oso final zaila izango da, baina aldi berean irekia, gu ere ongi gaudelako, konfiantzarekin.

**Zabaletak finala txapelketako partidarik gogorrena izango dela aurreikusten du.**

Finaleran tentsio handia egoten da, eta horregatik batzuetan akats gehiago egiten dituzu, tantoak ere motzagoak izaten dira... Ez dakit finala nolako izango den, baina badakit partida gogortuko dela eta irabazteko asko borrokatu beharko dugula.

**Kalbario latza.**

Zabaletaren kontra, hala izaten da beti.

**Horrenbeste baldintzatzen du Zabaleta? Berak esaten du zuek zaretela faboritoak.**

Hori beraiek esango dute, nik ez dut hori pentsatzen (kar-kar).

**"KONFIANTZA HANDIA DUGU ELKARREKIN, HARREMANA. HORREK INDARRA EMATEN DIGU BIKOTE GISA"**

**"JOSE ETA BOK LAGUNAK GARA. GALDUZ GERO, BERAGATIK POZTUKE NINTZATEKE"**

**Txapelketaren aurkezpenen zuek faboritoak zinetela esan zuela dio, eta finalean zaudetela. Altunak eta biok duzuen harreman estua nabarmentzen du.**

Egia da bikote batean oso garrantzitsua dela euren arteko harremana, nola ulertzen duten elkar. Bikotea momentu onean egotea eta ongi jokatzeko garrantzitsua da, eta uste dut bi gauzak betetzen ditugula, oso harreman ona dugulako eta finalera oso momentu onean iritsi garelako. Baina eurak ere. Finalerdietan asko jokatu dute. Biak ongi ikusten ditut, eta badakit finalean ere ongi jokatu dutela.

**Finalean hiru nafar egongo zarete, aspaldiko partez.**

Hiru nafarrek finala jokatzeko oso pozgarria da, eta finala Nafarroa Arenan jokatzeko baita ere. Ziur nago sekulako giroa egongo dela. Aurreko bi finalak Bilbon jokatu nituen, eta, beraz, nire lehenengo finala izango da Arenan. Ilusioz nago. Nahiz eta bertan soilik bi partida jokatu, Nafarroa Arena gustuko dut. Bi entrenamendu serio egiteko aukera izango dugu, frontoiko sentsazioak ongi hartzeko.

**Finala Aste Santuan jokatu da, eta sarrera gutxi gelditzen dira.**

Nahiz eta Aste Santua izan, goraino egongo da. Aurten inoiz baino jende gehiago egon da frontoietan. Ikaragarria izan da, asko nabaritu da. Eta giro ederra egon da. Bilboko frontoia hain da handia, askotan xarma edo berotasun hori falta zaiola. Binakakoan, aldiz, bi aldiz jokatu dugu bertan, eta giro oso ona zegoen. Ez dakit zergatik, inork ez du azalpenik, baina jendea asko hurbildu da frontoira. Eta hori oso ona da pilotarendako. **Bi gauza dira ziurrak: txapela Asperendako izango dela, eta txapela Arakilen geldituko dela. Lagun asko partekatzen dituzu Zabaletarekin; bihotza, erdibituta.**

Bai, nire kuadrilla eta berea lagunak gara, harreman handia dugu eta beti egoten gara batzuk



Julen Martijak bere lehen finala jokatu du Nafarroa Arenan. Ilusio handia du.

**"Finala oso zaila izango da, baina irekia, aldi berean"**

**JULEN MARTIJA OLLAKARIZKETA PILOTARIA**

Etxeberrikoak oso ongi ikusten ditu Zabaleta eta Etxeberria

besteekin nahasita. Finalera ere gure lagun asko joango dira. Bakoitzak bere laguna animatuko du, baina besteak irabaziz gero, ez da inolako arazorik izango. **Zabaletak dio nahiago duela irabaztea, baina galduz gero, zuregatik poztuko dela.**

Biak lagunak gara, harreman handia dugu eta berdin-berdina pentsatzen dut.

**2020an Ezkurdiarekin izan zinen Binakako txapeldun, eta 2022an Altunarekin. Hirugarren txapelera-ko tokia egin al duzu?**

Beti dago tokia beste txapela baterako (kar-kar), baina oraindik ez dut horretan pentsatu.

**Jokinek Lau eta Erdiko lau txapela ditu, Buruz Buruko bi, eta Binakako bat, zurekin lortutakoa. Egungo pilotari handiena da. Berak beti esaten du txapelketako ilusio handiena zurekin jokatzeko dela.**

Profesionalak izan baino lehen elkarrekin jokatu genuen, eta betidanik harreman oso ona izan dugu. Sarritan hitz egiten dugu, konfiantza handia diogu elkarri eta edozein gauza esan ahal diot, lasai asko, ez duelako gaizki har-

tuko. Eta alderantziz. Eta hori jokatzeko orduan asko nabaritzen da. Alde hori positiboa da guretako, eta indarra ematen digu. Askotan esaten dute gu faboritoagoak garela horregatik. **Galdu ala irabazi, ospatzeko asko izango duzu, ezta?**

Bai. Finala Iruñean jokatu da, eta Iruñean egun horretan festa handia egoten da, Aberri eguna delako eta hurrengo egunean festa delako. Horregatik, ziurrenik Iruñean ospatuko dugu.

## Indarguneetan zentratu

Jokin Altunak "final oso irekia" espero du. "Dirua ere berdintsu aterako dela iruditzen zait. Zaila izango da, biek aukerak ditugulako. Beraz, gure indarguneetan zentratuko gara". Egunotan minik ez hartzea da xedea, "eta mentalki prestatzea".



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Arakil, hitzez eta filmez

Sakanak hiru eskualde, hots, Burunda, Aranatz (berez, gaztelaniaz Barranca deritzana) eta Arakil. Behinola eztabaida izan nuen Jose Mari Satrustegi zenarekin, hitzaren jatorriaz. Satrustegik latinezko Ara Coeli ikusten zuen jatorrian, nik, ordea, Aranatz, Araia, Aralar izenetan antzematen nuen ulerbidea.

Bada, Arakil aldeak badauzka aparteko interesgune natural, kultural eta artistikoak, Aralarko Jaun Done Mikel monumentu multzoa buru, Zamartzeko gunea, San Donati (eta San Kaietano) basiliza, baita Euskal Herriko erdigune geografikoa den Olibeko Sarioko Saroia, Irañetako dermioan.

Halaber, bada Egiarretan Itxasperriko Santiago basiliza, eta huraxe da *La Ermita* filmaren ekintza gunea. Bertan Carlota Pereda zuzendariak historia fantasmagoriko bat ondu zuen iaz; Horiek horrela Belen Rueda, Josean Bengoetxea edota Loreto Mauleon aktoreek izuzko drama gotiko bat gorpuztu zuten, tarteka *The Exorcist*, tarteka *El día de la Bestia* gogora ekartzen diguna.

## BADA, ARAKIL ALDEAK BADAUZKA APARTEKO INTERESGUNE NATURAL, KULTURAL ETA ARTISTIKOAK

Bestalde, Miren Agur Meabe idazle handiak Lekeitio eta Uharte Arakilen kokatu du bere azken eleberria, *Itzulerak*. Duela urte batzuk GUAIXEREN bidez izan nuen nik Martija Jauregikoaren berri. XVI. mendean bizi izan zen *titulurik gabeko* sendagilea dugu Martija, eta haren bizitza

hartzen du oinarri Meabek Lekeitio eta Uharte, XVI. eta XX. mendeak lotzen dituen kontakizun eder bat osatzeko. Apirilaren 26an Uhartan egingen du idazleak liburuaren aurkezpena.

Amaitze aldera, Arakilgo Errotzen eman ditu zerbait urte Patxi Biskert aktore, eta orain zuzendari denak. Bada, Otaño bertsolariaren bizitza gai hartuta, *Onbuaren itzala* filma zuzentzen ari da Patagonian eta E. Herrian. Ea diru bilketa txukun egokitzen den eta Donostiako Zinemaldirako prest duen.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## GUTUNA

### Egiaren garaia da (eta inpunitateari amaiera ematekoa)

ARITZ IGOA GOÑI ETA JUAN KRUZ ALDASORO JAUREGI

ETXARRI ARANAZKO SORTUREN IZENEAN

Hogeita zazpi urte jada Josu Zabala Salegi Bilboko erdigunean desagerrarazi zutenetik. Martxoaren 23a zen, eta, aurrean bezala Korrika urtea zen. Hain zuzen ere, Korrikaren 10. edizioaren amaiera festa erraldoia ospatzen ari zen Bilbon inor konturatu gabe Josu "altxatu" zutenean, "La Tortilla" tabernaren ingurumarietatik. Hiru egun beranduago mendizale batzuk Josuren gorpua aurkitu zuten Debako Punta Mendata parajearen.

Gobernutik zabaldu zen "suizidioaren" bertsio ofiziala denbora honetan azaleratu diren egitateen argitara erabat desmuntatuta gelditu bada ere, gaur da eguna zeinean Josuren egiak ezkutuan segitzen duen. Ezkutuko egi horren azpian gordeta, kitatu gabe segitzen dute Josuren desagertze eta heriotzaren atzean dauden erantzukizunak.

Josuren Egiaren ezkututze hori Josuren familia eta lagunentzat izugarri mingarria da. Oinarritzko eskubide baten urraketa larria da gainera. Baina ez hori bakarrik. Ezagutzen ditugun datu guztiak Estatuaren estoldetara apuntatzen dutenez, esan genezake Josurekin gertatu zena berriz

gerta daitekeela Euskal Herrian. "Estatu arrazoiak" gidatzen duen tresneri beltz hori ez da inoiz eraitsia izan. Bizirik eta zigorgabe segitzen du. Tresneri hori bi Estatu egitura nagusitan dago errotua: "segurtasun" indarretako talde antiterrorista berezietan; eta botere judizialaren pasibotasun konplizean. Tresneri horren jardueraren ardura, Gobernuetan. Gobernuak interpelatzen segituko dugu, Josuren egi ezkututik atera arte. Erantzukizunak garbitu arte. Horrelakorik ez errepikatze bermeak izan arte. Martxoaren 23an, eguerdiko 12:30ean Etxarri Aranatzeko hilerrian elkartuko gara.

## OBJEKTIBOTIK

Itsasi Euskaltegia @ItsasiEuskalteg

Gaueko lanen ondoren, ederki deseunetu!



## ERREDAKZIOAREN OHARRA

Hurrengo zenbakia, martxoaren 27koa, berezia izanen da. Hori dela eta, ez da ez gutunik, ez agendarik, ez eskelarik, ezta iragarki laburrik ere argitaratuko. Ondoren, udaberriko oportetara joanen gara eta ez dugu astekaririk argitaratuko. Hurrengo GUAIXE astekaria apirilaren 12an argitaratuko dugu. Apirilaren 8an izanen gara lanean bueltan.

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436

Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernu

# Klinikako eguneko zentroa beteta eta lanak hasita

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko eguneko zentroko bost plaza berriak bete dira dagoeneko. Bestetik, ospitale gune berria egiteko lanak hasi dira. Aurreikusi baino bi gela gehiago egingen dira, guztira 33 izanen ditu

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Lanak azaroaren 24an mustu eta Nafarroako Gobernuaren oniritzia otsailean jaso ondoren, Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko eguneko zentroa 25 plaza izatetik 30 izatera pasatzeko prozesua hasi zuen. "Gurea pertsonan zentratutako arreta denez, ez dugu itxaron zerrendatik tira egiten eta etortzeko esan. Familiek bilerak egiten ditugu pertsonaren inguruan gehiago jakiteko, prozesua lantzen dugu eta egokitze fase bat dago. Bost plaza horiek betetzeko prozesuak hilabete eta erdi iraun du eta azken plaza joan den astean bete zen", azaldu du klinikako zuzendari gerente Angel Gardachal Ausejok.

## Ospitalea

Duela hilabete hasi ziren Etxeberriko Lantegi enpresa sakan-darreko langileak ospitalea handitzeko lanak egiten, eta urte akaberarako despeditu nahi dituzte. Ospitalea klinikaren hegoaldean dago. Haren ekialdeko zatiaren parean beilatoki bat dago. Lanekin ospitaletik beilatokiaren ekialdean dagoen aparkalekurainoko 618,20 m<sup>2</sup>-ko eraikin berria jasoko da. Paziente "oso sentikorrak" daudenez ospitalean, klinikako, eraikuntza enpresako eta obra zuzendaritzako ordezkariak lantaldea osatuta dute lanek gaixoengan ahalik eta eragin txikiena izateko. "Beti haien ongizatea dago erdigunean. Obrak iraun bitartean arreta ematen segituko dugu eta ez dugu gelarik hutsik utziko. Zoritxarrez itxaron zerrenda dagoelako, eta itxiz gero zerrenda handiagoa litzatekeelako", jakinarazi du Gardachal.

Ospitalearen eta beilatokiaren artean patioa egonen da, 288 m<sup>2</sup> izanen ditu, estalpe inguratuta egonen da (270 bat m<sup>2</sup>). Gardachal azaldu duenez, "orain dugun terapia jardueretarako patioa



Ospitaleko zati berriko zimenduak jartzeko lanak aurreratuta daude.

## OSASUNBIDEAREKIN HITZARMEN BEREZIA LORTZEKO NEGOZIAZIOEK SEGITZEN DUTE

zolatuta dago, baina sortuko den patioan lurra utziko dugu. Patio berdea izanen da, natura, lore eta baratze zaintza terapiak egiteko aukera emanen diguna".

Bestalde, eraikin berriaren iparraldeko aldean, "langileen-dako aldagela egokiak egingen ditugu. Baita haiendako jangela eta atsedean gune bat ere, horretarako espazio egokirik ez baitzegoen. Izan ere, gaur egun obra modulu batek hartzen du langileen aldagela. Hori pandemiaren geroztik da, zeren aurretik ez genuen halakorik", argitu du zuzendari gerenteak.

Ospitalea handitzeaz aparte, proiektuan jasotzen da lehendik dagoen aeroterminia instalazioa 100 kW-etan handitzea psikogeriatriko zentro osoan. Era berean, klinikak instalazio fotovoltaikoa handitzeko asmoa du, energia sortzeko gaitasuna 40 kW-tik

100 kWp-ra handituz, jasangarritasunarekin eta independentzia energetikoarekin duen konpromisoaren ildotik.

## Aurreikusi baino gehiago

Hasiera batean klinikak jakinarazi zuen hamar gela berri eraikiko zirela. Baina, azkenean, dozena bat izanen dira, eta ospitaleak, guztira, 33 gela izanen ditu. "Bi gela gehiago egingen ditugu jabetu garelako gabezia bat dagoela: demenzia duten eta oso-oso larri edo akutuak diren kasuak. Pertsona horiek ihes egin dezakete. Oldarkor jarri bere buruarekin edo besteekin. Halakoetan larrialdietara edo Foruzaingora hots egiten da", azaldu du Gardachal. Klinikaren egoera horiek sortzen duten sufrimendua ezagutzen dute eta sor daitezkeen arriskuak saihesteko, kasu horiendako propio bi gela egingen dituzte. "Oso larri den kasuren bat badago, larrialdi moduko bat, hartzeko aukera izanen dugu, larrialdietarako ohe bat edo bi izanen ditugulako beti libre. Horietan sartuko liratekeen pertsonak Osasunbidearekin kontzertatutako geletara pasatzeko lehentasunezko sar-

bidea izanen lukete", argitu du zuzendari gerenteak.

Osasunbideak eta klinikak ospitaleko gelak hitzartuta dituzte. Azken bi horiek ez daude barruan, baina klinikak akordioan sartzea eskatuko du. Bestalde, Gardachal jakinarazi duenez, "Osasun Departamentuarekin hitzarmen berezia sinatzeko negoziatzen segitzen dugu, eta aurten ixteko esperantza dugu. Departamentuak borondatea du, baina tramitea luzea eta mantsoa da. Parlamentutik ere pasa behar da".

## Lanpostu berriak

Ospitalea handitzearekin batera 25-30 lanpostu berri sortzea espero da, eta horrek zentro psikogeriatrikoaren plantilla osoa 85-90 pertsonara igoko du. Enplegu horiek ia guztiak osasun sektorean izanen dira, eta emaku-

meak %90 izanen dira. Langile berri guztiek prestakuntza jasoko dute. Zuzendari gerenteak azaldu duenez, "gurea oso espezializatutako klinika da, kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugu. Berdin da mediku, erizain edo okupazio terapia titulua izan, langile berriek gure espezialitatean trebatu beharko dira. Gure ikuspegia eta metodologia eza-gutu beharko dituzte. Lanbidearen arabera hiru edo sei hilabete egin beharko dute lanean gurean".

Langileen prestakuntza eta lanek bi milioi euroko aurrekontua dute. Osasun Departamentuak hartutako konpromiso publikoari esker lortu da lanak egitea. Finantzatzeko Sodenak eta Elkargik %50eko abala eman dute eta Caixa Bankek eta Laboral Kutxak %50eko ekarpena egin dute.

23.korrika

**HARRO BERRI**

**MARTXOAREN 27AN GUAIXE BEREZIA: KORRIKA!**

**ARGAZKIAK, ELKARRIZKETAK, BALORAZIOA, DENBORA-PASAK, INKESTAK...**

**guaixe**



2023an 'Ehundu sarea' egin zuten, patchwork bat osatuz. ARTXIBOA

# Brodatzearen historia eta istorioak biltzeko

'Hariak hitz' Brodatu feministak egiteko topaketa antolatu dute biharko, martxoak 23, larunbata, Etxarri Aranazko plazan. Brodatzen ikasteko aukera izanen da, eta helburua brodatzearen inguruan emakumeak eta feministak elkartzea da

**E. C. M eta E. R. B.** ETXARRIA.

"Brodatua erabili izan da gizarte zibilizazio guztietan pixka bat emakumea isilarazteko, gordetze-ko, eta ezkontzerako emakumearen irudi fina, metodikoa eta isila islatzeko. Baina emakumeak historian zehar brodatua guztiz kontrarako erabili izan du: aldarrikapenak egiteko, mezuak uzteko...". Esaterako sufragistek haien pankartak egiteko brodatua erabiltzen zutelaz azaldu du Alazne Juaniz Erabiliko jostuna eta Emhari joste taldeko irakasleak. Bihar, martxoak 23, larunbata, Etxarri Aranazko plazan, emakumearen eta brodatuaren arteko harremanaren berri historian zehar emanen dute *Hariak hitz Brodatu Feministak* topaketan. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak, Etxarri Aranazko Udalak, Emharririk eta Erabilik antolatu dute ekimena Emakumearen Egunaren harira.

Brodatu feministak topaketa Emhari taldearen lan erakusketaren mustutzearekin hasiko

da, 10:00etan: "Urte batzuk darmatzat Etxarrin klaseak ematen, eta ikasleekin Emhari taldekoa sortu genuen. Urtero martxoaren 8aren inguruan erakusketa bat prestatzen dugu, eta prestatutako brodatuekin larunbatean egingen dugu". Brodatu ezberdinekin brodatuaren historia eta feminismoaren historia kontatzen dituzten testuak prestatu dituzte: "Brodatua zer den eta nola erabili izan duen emakumeak historia zehar gauzak kontatzeko, kulturak eta ohiturak mantentzeko, mezuak gordetzeko eta abarrerako".

Topaketan brodatzera ikasteko aukera izanen da ere bai, 10:00etik aurrera eta topaketaren aurretik egingen den tailerlean. "Gure ideia da topaketan ahalik eta

**BIHAR 'HARIAK HITZ' TOPAKETA FEMINISTA ANTOLATU DUTE ETXARRI ARANAZKO PLAZAN**

pertsona feminista gehien parte hartzea, orduan ez dakienak eta parte hartu nahi dutenendako aurretik puntada batzuk ikasteko aukera izanen da". Materiala antolakuntzak jarriko du, eta parte hartzaileek brotxe txiki bat egingen dute.

"Topaketa feminista" izanen dela azaldu du Juanizek. "Norbaitek joste edo brodatu lan bat egingen ari bada, ekarri dezake; beste batek josten ez badaki bertan ikasi dezake eta brodatzera animatu; guk lagunduko dugu. Esaldi batzuk prestatuko ditugu eta denok brodatuko dugu, ez da aurretik jakin behar". Helburua "emakume pila bat" elkartzeko eta energia "polit bat" sortzeko da. Topaketarekin amaitzeko Pantxika agertuko da, "sorpresa" batekin.

Topaketan parte hartzeko aurretik izena ematea 680 142 007 telefonora Whatsapp mezua bidaliz. Eguraldi aurreikuspena dela eta, tailerra eta topaketa Derry tabernan egingen dute, eta erakusketa eta Pantxika estalopean.



Gaur egun ikastetxean 200 bat ikasle ari dira ikasten. ARTXIBOA

## Ikasketa berria Sakana Lanbide Heziketa institutuan

Heldu den ikasturtean goi mailako Automatizazio eta Industria Robotikako teknikari ikasketa izanen da

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Sakana Lanbide Heziketa institutuak ziklo berria eskainiko du: automatizazio eta industria robotikako goi-mailako teknikari ikasketak, gaztelaniaz. Departamentutik azaldu dutenez, Sakanako Enpresen Elkarteak eskatu zituen ikasketok. Mari Jose Oiarbide Izagirre ikasketa buruak azaldu duenez, "ikasketa berria 20 ikasle eman dezake izena. Gainera, beste bi plaza daude ikasketekin lotura duten profesio ziurtagiria dutenak sartzeko. Beraz, 22 ikasle hartuko ditu".

**Inbertsioa**

Ekipamenduetan eta digitalizazioan ere berritasuna izanen da. Institutuak badu Ateca gela. "Han puntako teknologia dugu", azaldu du Oiarbidek. Heldu den ikasturterako beste bat izanen du. "Hori industria ikuspegi bideratuta" egon dela jakinarazi du ikasketa buruak.

Bestalde, Sakana LHko ikastetxeak dagoeneko gaikuntza gela digital bat du (MRR programa). Oiarbidek azaldu duenez, "gela digitalizazio prestakuntza emateko baliagarria eta sakandarrei zuzenduta dago. Guk ikastetxe gisa eskaintza antola dezakegu, baina gela erabiltzeko eskaerak egin daitezke ere. Esaterako, irakasleek beraien burua trebatzeko saio bat egitea. Edo guraso elkarteak teknologia berrien eta seme-alaben arteko erlazioaz aritzeko. Edo enpresa edo elkarte profesionalak ere erabili de-

zakete gela". Horretarako, gela erabiltzen interesa duenak eskaera egin behar dio institutuari, hark aztertu eta erantzuna emanen du.

**Izena emateko epeak**

Erdi-mailako eta goi-mailako zikloetan izena emateko epea apirilaren 29tik maiatzaren 10era bitartekoa izango da. Oinarrizko Graduko zikloetarako izen-ematea maiatzaren 13tik 17ra izango da. Eskaintza modular, birtual eta espezializazio-ikastaroetarako izen-ematea irailaren hasieran egingo da.

Sakana LH ikastetxeak honako eskaintza du: Oinarrizko LH, merkataritza zerbitzuak; LH berezian, merkataritzako zerbitzu orokorretako laguntzailea (ele bitan); Erdi mailako zikloak: mantentze-lan elektromekanikoa, soldadura eta galdaragintza (ikasketa duala), mendekotasun egoerak dauden pertsonen laguntza (euskaraz) eta mikroinformatika sistemak eta sareak (ikasketa duala, euskaraz); Goi mailako zikloak: industria mekatronika; fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa (ikasketa duala); Haur Hezkuntza (euskaraz) eta automatizazioa eta industria robotika; Kirol ikasketak, mendi ertaineko teknikaria eta eskalada teknikaria; lanean ari diren langileak titulazioa lortzeko profesio ziurtagiriak lortzeko ikastaroak eta lan esperientzia eta arautu gabeko trebakuntzaren bidez eskuratutako gaitasunak ofizialki aitortzeko aukera.



Haurrak Arruazuko frontoian jolasten. ARTXIBOA

## Euskarazko udalekuetako eskaintza eta dirulaguntzak prest

Eskaintzaren berri era.eus webgunean dago. Laguntza eskaerak irailaren 30era arte jasoko dira

### SAKANA

Euskarazko udalekuek disfrutatzeko aukera paregabea eskaintzen die neska-mutikoei, haiendako propio pentsatutako jarduerak eskaintzen baitituzte. Haietara joaten direnek lagun berriak egiten dituzte, eta ohar-kabeen, hizkuntza ohiturak sortu eta finkatzen dituzte. Modu guztietara, ume horiek jarduera atseginekin lotzen dute euskara, eta bide batez, erregistro informala bereganatzen dute, hau da, adinkideen arteko hizkera. Udalekuen eskaintza zabala dago gaur egun, baita euskaraz ere. Dagoeneko udaleku batzuk izena emateko epea ireki dute. Eskaintza horren berri *labureus/5Izu1* webgunean dago. Era izeneko web orri hori Nafarroako toki-entitateetako 29 euskara zerbitzuak elkarlanean sortu dute, tartean Sakanakoa. Bere helburua da euskaraz ikasten duten haurren

gurasoei laguntza eta baliabideak eskaintzea, seme-alaben ikas prozesua osatzeko.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eskaintzaren berri ematearekin batera, jakinarazi du udalekuetara joateko dirulaguntzak ere eska daitezkeela. Beti ere, euskara hutsezko udalekuak badira eta 5 egun (4 gau) eta 15 egun (14 gau) bitarteko iraupena eta udako oporren garaian badira. Euskara Zerbitzuak 9.000 euroko diru poltsa du aurten banatzeko. Haur edo gazte bakoitzak udaleku bakoitzari jaso dezake dirulaguntza, gehienez 125 eurokoa.

Udalekuetara joateagatik dirulaguntza eskabideak irailaren 30era arte jasoko diru Euskara Zerbitzuak. Aurkeztu beharreko agiriak zein diren eta dirulaguntza deialdiaren berri ibarreko erakundearen *sakana-mank.eus* webgunean eskuratu daiteke.

# Lakuntzak UEMAKo kide izatea erabaki du

Datu soziolinguistikoak ahalbidetzen dutenez, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea erabaki zuen atzo. Erakunde horretan dagoen Sakanako laugarren udala izanen da, Arruazu, Arbizu eta Etxarri Aranatzekin batera

### LAKUNTZA

Korrika aurreko egitarauaren barruan, Lakuntzako Udalak aurkezpen solasaldia antolatu zuen: *Lakuntza udalerrri euskaldunen artera: zergatik UEMA?* Martxoaren 13an udalak lakuntzarrei jakinarazi zien herriak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko baldintzak betetzen dituela. Izan ere, lakuntzarren artean euskararen ezagutza handitu egin da eta %65 inguruk badaki euskara. Euskararen ezagutzak gora egin ondoren, azken datu soziolinguistikoaren arabera udalerrri euskaldunen multzoan dago orain Lakuntza. Horri helduta, Lakuntzako Udalak UEMAKo kide izatea erabaki zuen atzoko osoko bilkuran. "Aukera hori euskararen bizi iraupenari eta erabilerari bultzada emateko baliatu nahiko genuke", adierazi du Oihane Uribeetxebarria Garmendia alkateak.

UEMAk, eragile politikoa izateaz aparte, bere kide diren udalei euskara zerbitzua ere eskaintzen die. Horren baitan, administrazioa euskalduntzeko zerbitzuak, udalerrriak euskalduntzekoak, herri-tarrak ahalduntzeko zerbitzuak eta udalerrriaren zaintza eta garapenari begirakoak ere eskaintzen ditu. UEMAK 107 kide ditu,



Lakuntzarrak plazan ospakizun egun batean. ARTXIBOA

horietatik hamazazpi nafarrak dira, eta Lakuntzarekin, lau sakanak: Arruazu, Arbizu eta Etxarri Aranatz.

### Kezka

Euskararen ezagutzak eta kaleko erabilerak apur bat gora egin duten arren, kaleko erabilerarekin oso kezkatuta dago udala. Uribeetxebarriak adierazi duenez, "erabilerak bultzatzea da hurrengo urteetarako erronka. Izan ere, Lakuntzan erdara da nagusi kalean. Erabilerak bulkatzeko, elkarlana eta auzolana ezinbes-

teko lanabesak izango dira. UEMAREN esperientzia eta udalerrri euskaldunetarako duen hizkuntza politika Lakuntzarako ere bidelagun izan daitezkeela sinesten dugu".

Euskaldunen eta ia euskaldunen ehunekoak apur bat gora egin du Lakuntzan, eta horrek ahalbideratu dio udalerrri euskaldunen multzora iristea. Kaleko erabilerak ere gora egin du, baina, hala ere, %34,3koa da oraindik. Hori iraultzea da udalak hartuko duen erabakiaren helburuetako bat.

**ARRUAZUKO UDALA**

**ARRUAZUKO OSTATUA**

**ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA**

Baldintzen plegua: Uharte Arakilgo udaletxean interesdunen eskura dago, baita kontratazio-atarian ere.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Uharte Arakilgo udaletxean, 2024ko apirilaren 4ko 14:00ak baino lehen.

Uharte Arakilen, martxoaren 22an.  
Gorka Ovejero Ganboa,  
Arruazuko udaleko Alkate-Udalburua

AYUNTAMIENTO DE ARRUAZU  
ARRUAZUKO UDALA

**PORTUKO**

*ofidena*

**Dastatu gure Goxua!**

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

**Kaixo**  
Kafetegia - Jateetxea

Menua, plater konbinatuak eta ogitartekook aukeran

García Ximenez 20-22  
948 469 124 Altsasu  
www.restaurantekaixo.com



Osasun etxeko langileek eta altsasuarrek parte hartu dute bilkuran.

## Palestinan bizi duten genozidioari "ez ohitzeko" deia

Bilkura bidez "Palestinarek bizitzen ari diren infernua" ez dutela ahazten adierazi nahi izan zuten

### ALTSASU

Nafar Osasungintza Su Etenaren Aldek deituta, Nafarroako hainbat osasun etxeen parean Palestinan berehalako suten iraunkorra eskatzeko bilkurak egin ziren atzo, baita Altsasun ere. Horrekin batera, mugetan dagoen eta Israel Gazan sartzen uzten ez duen giza laguntza sartzea exijitu zuten. Aldi berean, Nazioarteko Giza Zuzenbidea eta Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak betetzea eskatu zuten. Azkenik, genozidioa eta apartheidak Palestina osoan etetea eskatu zuten.

Osasun arloko profesionalak esan zuten, "ez dugu ohitu nahi Gazan eta Palestinan bizi duten genozidioari". Bestetik, "osasun langile garen aldetik, min handia ematen digu desnutrizioak eragindako heriotzak" Gogorarazi zuten, "gero eta jaioberri eta haur gehiago daude gosearen ondorioz hiltzeko zorian". Horregatik, "gosetea gerra estrategia gisa erabiltzea", salatu zuten. Israelek dagoeneko 40.000 palestinar hil dituela, 458 osasun langile. "Osasun langileak baldintza izugarrietan lan egiten dute, baliabiderik eta atsedenerik gabe".

### DUELA 25 URTE...



## 11. Korrika

Martxoaren 19an Iruñean hasi eta 28an Donostian bukatu zen Korrikaren 11. edizioa. Edizio hark  $1 + 1 = hamaika$ . *Zu eta ni euskaraz* leloa zuen. Sakanatik martxoaren 23an pasa zen. AEK-k antolatutako errelebo lasterketaren aurretik Korrika Kulturalako eta bestelako ekitaldiak izan ziren hainbat herritan, esaterako, Irurtzunen, Arruazun, Arbizun, Ergoienan, Urdiainen eta Ziordian.

# Trenbidea bikoiztearen aldeko adierazpena

Hainbat udalek, kontzejuk eta zinegotzik AHTarendako azpiegitura berri bat egitea saihesteko. Adostu duten adierazpena Espainiako Gobernuak Gasteizko eta Iruñeko ordezkarietara, Eusko Jaurlaritzara eta Nafarroako Gobernura eraman dute

### SAKANA

Abiadura Handiko Trenaren bidez Euskal Y eta Nafarroako korridorea lotzeko proiektuak ukitutako Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako hautetsiek *Trenaren, lurraldearen eta herri borondatearen defentsaren aldeko Erakunde Adierazpena* sinatu dute. 22 alkatek, 146 zinegotzik eta 40 kontzejuk (14, 84 eta 12 sakandar) bat egin dute adierazpenarekin. Espainiako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuetuzendutako adierazpen horren bidez hainbat eskaera egin dituzte hautetsiek. Lehenik, "Lautada, Goierri, Itza-Oltza eta Sakanako eragile sozioekonomiko guztiekin eztabaida zabal bat sustatzea". Eztabaida horrek bi beharrei erantzun beharko liekeela uste dute. Batetik, trenaren pertsonen "egiazko" mugikortasun zerbitzua izan dadin nahi dute, herriak haien gertuko hiriburuekin maiztasun nahikoarekin lotzeko. Esaterako, Lautada, Itza-Oltza eta Sakana Iruñea eta Gasteizekin. Bestetik, "ekoizpen sektoreen beharretara egokitutako salerosketen garraio zerbitzua, ekoizpen ehuna indartu eta garatuko duena" eskatu dute hautetsiek.

Hautetsiek konpromisoa hartu dute *Burgos, Araba eta Nafarroan ibilbideen azterlana eta tren publiko eta sozial baterako proposamena* alternatiba edozein forotan sostengatu eta babestea. Horrekin batera, AHTaren garapenerako ministerioak aurkeztu duen proiektua errefusatu dute. Sinatzaileek "herri borondatearekiko errespetua" exijitu dute.

### Argudioak

Adierazpenarekin bat egin dutenen iritziz, "klimatek aldaketaren, isurpenen murrizketa neurrien eta aurrerakuntza teknologikoen testuinguruan, mugikortasunak paradigma aldaketa bat bizi du".



Hainbat udal eta kontzejutako ordezkari adierazpenaren aurkezpenean. UTZITAKOA

## TRENA PERTSONEN ETA MERKANTZIEN GARRAIORAKO "EGIAZKO" ZERBITZUA IZATEA NAHI DUTE

Horregatik, "pertsonen eta ekoizpen sektoreen beharretara bideraturiko" estrategiak aldarrikatu dituzte. Trenari dagokionez, "merkantzien garraioan hobetzeko tarte zabal" dagoela argitu dute, gaineratuz, "ekoizpen sektoreen garapenerako ezinbesteko elementu gisa aurrerakuntza da".

Sinatzaileen iritziz "AHTarendako linea eskusiboeke hiri handietan gertatzen ari diren biztanle kontzentrazioak bultzatzen dituzte eta era berean, Lautada, Goierri, Itza-Oltza eta Sakanako despopulazioa eta isolamendua eragiten dituzte tren konexiorik gabe uzten gaituztenean". AHT betiko tren sarearen lepotik hazten ari dela nabarmendu eta tren sareak beraien eskualdeetan duen egoera "goibela" azpimarratu dute: "tren zerbitzuen azpiegiturak txartuz doaz gertuen

dauzkagun hirietara konexioak zailduz eta langile eta ikasle mugikortasuna galaraziz". Sinatzaileek azaldu dutenez, "etorkizun hurbilean tren garraibide nagusienetako izanen den arren gure eskualdeetan tren lotura egokirik ez egoteak" tokiko ekoizpen sektoreen eta etortzeko interesa adierazi duten ekintzaileen arduraren sortzen du. Aurreikusitako AHT egitasmoek "gure lurraldea eta orografia larriki" kaltetuko lukeela gaineratu dute.

Ziurtatu dutenez, "Lautadan, Goierri, Itza-Oltza eta Sakanan dagoeneko ahalmen handiko tren azpiegitura bat daukagu baina XXI. mendeko erronka eta beharrei aurre egiteko inbertsioen beharra dauka. Gaur egungo tren azpiegitura egokitzeko hainbat proposamen daukagu pertsona eta salerosketen garraio konbinatua ahalbidetuko zutenak, honela, ekoizpen sektoreen eta jendartearen beharrik beteko lituzkete. Horrelako jarduerak abian jarri dira dagoeneko Europan eta Estatuko hainbat eskualdeetan". Plataformek bezala, dagoen tren bikoiztea eskatu dute, azkarrago eta prezio erdian egin daitekeelako.



# Duatleten eguna eta festa Altsasun

**DUATLOIA** Larunbat goizean 90 duatletek hartuko dute parte kategoría txikiko NKJ-etako Altsasuko Duatloian. Arratsaldean, 120 duatletek hartuko dute irteera XIII. Altsasuko Duatloian. Mikel Astiz joan zen urteko garaipena berritzen saiatuko da

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Duatletek Altsasu hartuko dute martxoaren 23an. Sakanako Triatloi Taldekoek egun osoko lana dute aurretik, goizean txikiak eta arratsaldean helduek lehiatuko direlako. 10:30etatik aurrera kategoría txikiko Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) Altsasuko Duatloia jokatu da Txioika ikastolako inguruetan. Benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta jubenilak kontuan hartuta, 90 duatleta daude izena emanda atletismoa eta txirrindularitza batzen dituen proban.

Helduen txanda arratsaldean izango da. 15:45ean abiatuko da Bioracer Altsasuko XIII. Duat-



Joan zen urtean hotzak eta ekaitzak proba izugarri gogortu zuten.

loia-Gabirondo aukerazko ibilgailuak proba, Altsasuko plazatik. Herrigunean prestatutako zirkuituari bi buelta emanez, 5 km korrika egin beharko dituzte duatletek, plazan kokatuta egongo den trantsizio gunean bizikleta hartu eta Altamirako buelta bi aldiz eginez (20 km). Bizikleta utzita, korrikako zirkuituari buelta bat emango zaio (2,5 km). Proba banaka edo erreleboka (kirolari batek korrikako sektorea eta besteak bizikletakoa) egiteko aukera izango da.

**Sakandarren arteko lehia**

Joan zen urtean eguraldi oso petralarekin jokatu zen Altsasuko Duatloia, bereziki txirrindularitzako sektorean eta Altamira gainean eragina izan zuena. Mikel Astizek eta Nuria Rodriguezek lortu zuen irabaztea, eta aurten ere erronka berberarekin hurbilduko da Hiru Herriko ihabardarra Altsasura. Sakana Triatloi Taldeko kideak, Sergio Garcia de Eulate (martxoaren 17an Arangurenen bosgarren) eta Ekhi Congil buruan, aurreko postuetako borrokan egoteko asmoa dute baita ere.



Leire Etxaniz. LEZKAIRU TAEKWONDO

**TAEKWONDOA** **Leire Etxaniz Claver, Belgikako Open G2-an**


Martxoaren 17ko Belgikako Open G2 Taekwondo Txapelketan Leire Etxaniz Claver altsasuarrak ederki aritu zen. Lehen errondan Poloniako ordezkariari 2-0 irabazi zion, bigarren errondan Alemaniakoari 2-0, eta hirugarren errondan 2-1 galdu zuen Poloniaren kontrako lehia estuan, final laurdenetan. "Domina eskura izanda, zapore gazi-goza da. Europako onenekin ari gara lehian".

# Adur Senar, bigarren Etxauriko Krosean

**ATLETISMOA** David Palomo eta Maria Ordoñez gailendu ziren Etxauriko portua igotzeko lasterketa ezagunean. Adur Senar korrikalari lakuntzarra bigarren izan zen, 24 segundora, lesioa gainditu eta gero

Igandean XLIII. Etxauriko Kros-a jokatu zen, Etxauriko plazatik abiatu (407 m) eta Etxauriko portu gainan (840 m) despeditzen den lasterketa berezia. 7 kilometrotan 433 metroko desnibelari egin behar izan zioten aurre korrikalariak, proba gogorra. Aurten 93 korrikalariak lortu zuten proba despeditzea, David Palomo (29:22) eta Maria Ordoñez (33:43) buru zirela.

Adur Senar Asurabarrena lakuntzarrek lasterketa ederra egin zuen. Bigarren sailkatu zen, Palomotik 24 segundora (29:46). Jose Antonio Salgado beterrano altsasuarrak 66. sailkatu zen (43:13), eta Miguel Yerro 85. (50:12).



Adur Senar, ahaleginean. ITXASO SAGARDYOY

Adur Senarrek urte zaila izan du hankako lesioarengatik. Ohiakoa da lakuntzarra Dantzalekuko pistetan serieak egiten eta entrenatzen ikustea, eta badirudi ahaleginak emaitza ona izan duela. Lasterketan bere burua ongi ikusi zuela aitortu zuen lakuntzarrak helmugan. "Lasterketa ongi prestatu nuen, eta lesioaren ondotik azken asteetan ongi sentitu naiz. Hasieratik erritmoa hartu eta goraino erritmo bera mantentzen saiatu naiz. Ezin izan dut lehendabizikoarekiko distantzia gutxitu" azaldu zuen, gogorrera bukaera izan zela gaineratuz. "Nekea pilatzen da, eta orduan asko sufritzen da".

**kattuka**  
haur eskola

**Ate irekiak**  
**Martxoak 26**  
**17:00**

**Aurrematrikula**  
**Apirilak 10etik 24ra**  
**Matrikula**  
**Ekainak 6tik 12ra**

**Kattukan (9:15-15:15) edo On line**

Kattuka Haur Eskola (Arbizu-Lakuntza)  
info@kattuka.com  
www.kattuka.com  
948 567 009  
Uhalde kalea z/g. 31839 Arbizu



Erburua irristalarien bilgune izango da.

## IRRIKAKETA Nafarroako irristalari azkarrenak Olaztin bilduko dira

Nafarroako irristaketa klubek Olaztin dute hitzordua martxoaren 23an, larunbata, 10:00etan Erburua kiroldegian. NKJ-en Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako laugarren jardunaldia egongo da jokoan, eta 200 irristalari inguru espero dira. Tartean, Sakana Patin taldeko irristalari azkarrenak lehiatuko dira. Kategoria guztietako lasterketak jokatu dira.

## TXIRRINDULARITZA LXV. Erramu Trofeoa, igandean Altsasun

Zailtasun guztien gainetik Altsasu Kirol Elkartek juniorren mailako LXV. Erramu Trofeoa antolatu du igandean, 10:00etan (101 km). Tropelak Zegamako bidegurutzeraino joko du, eta Altamira hirutan igoko du. Iker Gomezek martxoaren 3an Altsasun irabazitako Udaberriko Saria eta gero, bere bigarren garai-pena lortu nahiko du.



Etxarri Aranatzek erabakiko da txapelketa eta ikusmina handia da.

# Etxarrin erabakiko dira txapelkunak

**HERRI KIROLAK** Etxarri Aranazko pilotalekuak XXXVII. Nafarroako Herri Kirol Jokoen final handiak hartuko ditu igandean 11:00etan. Kimuen proba konbinaturako Andra Mariko hiru talde sailkatu dira, eta sokatiran Andra Mariko eta Iñigo Aritzako taldeak

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako XXXVII. Nafarroako Herri Kirol Jokoen Txapelketa bukaerara iritsi da. Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekua txiki geratuko da igandean, 11:00etatik aurrera jokatu diren finalak hartzeko.

### Proba konbinatuak

Aipatzekoa da herri kirol proba konbinatueta soilik kimuen mailan izango dugula ordezkari. Lau taldek jokatu dute finala, eta horietatik hiru Andra Mari ikastolako taldeak izango dira. Finalerako sailkatu den beste taldea Arantza da. Haurren eta kadeteen mailetan ez dira

sakandarrak lehiatuko. Haurren txapelaren bila Antsoain C, Antsoain D, Araxes eta Igantzi ibiliko dira, eta kadeteen txapelketatik Antsoain, Arantza, Araxes eta Basaburua lehiatuko dira. Beraz, soilik kimuen mailan dago txapela janzteko aukera.

### Sokatira

Sokatiran haurren mailan (480 kg) sei talde sailkatu dira finalerako: Andra Mari 1, Andra Mari 2, Iñigo Aritza, Antsoain C, Antsoain D eta Paz de Ziganda. Aldiz, kadeteen mailan (540 kg) bost jardunaldiko ligaxkan jokatu ari da txapelketa, eta momentuz, honela dago sailkapena azken jardunaldiaren faltan:


Berriozar (7 puntu), Basaburua (5,5 puntu), Antsoain (5,5 puntu), Andraozar (4 puntu), Araxes (2,5 puntu), Paz de Ziganda (2,5 puntu) eta Iñigo Aritza (puntu 1).

### Gonbidapena

Ikusmina handia da, eta igandean Etxarri Aranatzek jendetza espero da. Altsasun jokatu dute txapelketako hirugarren jardunaldian ere txiki geratu zen Burunda pilotalekua. Finaletara hurbiltzeko deia egin dute Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastolako herri kirol arduradun Jon Lagosek eta Mikel Senarrek. "Merezi du, giro ederra egoten da. Neska-mutilek bikain pasatzen dute, eta ikusleek baita ere".

## Jauregi, Corchero, Resano eta Larrion, Euskal Duetloian

**DUATLOIA** Martxoaren 23an korrika eta aizkora lotzen dituen Euskal Duetloia kanporaketa hartuko du Tolosako zeren plazak, 18:00etan. Hogei kirolari lehiatuko dira, tartean joan zen urteko finala jokatu zuen Arkaitz Jauregi, Eloy Corchero, Iban Resano eta aurten mustuko den Eneko Larrion. Sei onenak apirilaren 21eko finalerako sailkatuko dira.



Eloi Corchero, joan zen urtekoan. UTZITAKOIA

## FUTBOLA

### EMAKUME PREFERENTEA

**3. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Altsasu - Berriozar **4-1**

### SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 2. FASEA

**1** Gares **7**  
**3** Altsasu **4**

### HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 23, LARUNBATA

**16:30** Altsasu - Gares (Dantzaleku)

### Altsasuk liderra hartuko du

Garaipenak animoa eman dio Altsasuri, liderraren kontrako hitzorduari begira.

### GIZON PREFERENTEA

**24. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasu - Infanzones **1-0**

### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

**1** Burlades B **47**  
**12** Altsasu **32**

### HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 24, IGANDEA

**12:30** Altsasu - Itarua Huarte B (Dantzaleku)

### Altsasu vs Itarua Huarte B

Infanzonesen kontra irabazi eta gero, igandean sailkapenean hamargarren eta arerio zuzena den Itarua Huarte B taldea hartuko du Altsasuk, sailkapenean gora begira jartzeko aukera paregabea.

### Zalduak Bar Olmorekin ezin

Elomendiko Txapelketan, Zalduak 1-2 galdu zuen Bar Olmo bigarrenaren kontra. Arakildarrek bosgarren jarraitzen dute eta Asdefor da hurrengo aurkaria.

### GIZON ERREGIONALA

**21. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Etxarri Aranatz - Ardoi **0-0**  
Asdefor - Lagun Artea **3-1**

### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

**1** Mutilbera C **48**  
**2** Etxarri Aranatz **45**  
**8** Lagun Artea **32**

### MARTXOAK 23, LARUNBATA

**11:00** Lagun Artea - Baztan B (Zelai Berri)

**17:00** San Jorge - Etxarri (Sanduzelai)

### Etxarri, aukera galdua

Etxarri Aranatz Mutilbera liderretik 3 puntura dago orain. Sailkapenean hirugarren den San Jorgearen kontrako partidaren puntuak lortzea ezinbestekoa da.

### Lagun Artea Baztanen kontra

Azken partidaren galdu ondoren, sailkapenean hamairugarren den Baztanen kontra bide onera itzuli nahi du Lagun Artea.

**BIKAIN GARAJEA**

Mekanika  
Elektromekanika  
Serie 100  
pintura prototipoa  
Autokarabana eta  
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

**FLORES**

Utzubar industrialdea Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistorra

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN.** Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 22

### ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua.

**17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.**

### ALTSASU Pala.

Gure Pilota elkartearen Nafarroako Kirol Jokoen partidak: A. Mendia – Santano / Marroyo – Gastearena. **17:30ean, Burunda frontoian.**

### ALTSASU Aurkezpena.

Sakanako Kontseilu Sozialistaren Sakanako Laneko Autodefentsa Sarearen aurkezpena. **18:00etan, Gure Etxean.**

### LAKUNTZA Aurkezpena.

Parkean eraberritze lanetako parte hartze prozesuaren aurkezpena. **18:30ean, udaletxean.**

### IRURTZUN Proiektzioa eta solasaldia.

Mendi jarduerak: *Into the ice* Hego Amerikako Sarwin mendikatea esploratzen proiektioa eta solasaldia Eñaut Izagirre Estibaritzekin. Sarrera moduan 20 minutuko diapositiba proiektioa izanen da. Elebiz. Sarrerak: 2 euro.

**19:00etan, kultur etxean.**

### ALTSASU Bakarrizketa.

Ane Lindaneren bakarrizketa: *BilboRata eta bakarrizketaria*. Aktore lotsagabea eta ikasketarik gabeko idazlea. Bideoetan dirudiena baino txikiagoa da, eta askoz jatorragoa. Umore feminista, punkia eta politizatua egiten du. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak marxoaren 8aren harira antolatutako Isilarazi matxismoa programaren barruan. Izena ematea: [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net) e-postan. Elebitan.

**19:00etan, lortia kultur gunean.**

### ARBIZU Elkarretaratzea.

*Alarma Gorria – Goi tentsioko lineari ez elkarretaratzea.* **20:00etan, plazan.**

### ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

Streetwise, Arene 6 eta Aukera Okerra taldeen kontzertuak. Sarrerak: 9 euro.

**Ate irekiera, 21:00etan; gaztetxean.**

### LAKUNTZA Kontzertua.

Los del Rayo taldearen kontzertua. **22:00etan, Sorginak tabernan.**

## LARUNBATA 23

### LAKUNTZA Mendi irteera.

Zabalarte elkartearen mendi irteera: Lekarotz – Legate – Etxebertzeko borda, 13 kilometroko ibilbidea. Bazkaria: Etxebertzeko borda. Izena eman: Ogi berrin, 45 euro. **08:00etan, plazatik.**

### ALTSASU Txirindularitza irteera.

Barranka Txirindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: La Nebera, 53 kilometro. **09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

### ETXARRI ARANATZ Topaketa.

*Hariak hitz*. Brodatu feministak egiteko topaketa: brodatzen aritua bazara, eraman zure proiektua bertan egiteko; bestela, esaldi bat aukeratu eta hura brodatu. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak, Etxarri Aranazko Udalak, Erabilik eta Emharik antolatuta. Izena ematea: 680 142 007 telefonoan Whatsapp bidez.

**10:00 Erakusketaren mustutzea, estalopean.**

**10:00-11:30 Brodatu lantegia, Derry tabernan.**

**11:30-13:00 Brodatzaileen topaketa.**

**13:00 Pantxikaren sorpresa.**

### ETXARRI ARANATZ Pala.

Gure Pilota elkartearen Nafarroako Kirol Jokoen partidak: Goñi – Moreno / Beraza – Mendiburu; Campos – Sasiain / Guerra – Iribarren; Jaka – San Martin / Garaño – Saralegi; A. Beltza – H. Urbe / I. Erauskin – E. Murugarren; Garmendia – Jimenez / Astrain – Guerra; Amado – Campos / Lohiarte – Aldaz; Gaintzarain – Lazkoz / Arraras – Nuin; Goyenaga – Olague / Marroyo – Aldasoro.

**10:00etan, Euskalerriri frontoian.**



ARTXIBOA

**IRURTZUN Irurtzongo pintura tailerraren Emakumearen egunaren harirako erakusketa. Irurtzongo Emakume Taldearen XXXI. Emakumeei buruzko jardunaldien barruan antolatuta. Martxoaren 31ra arte. Tahonan eta Pikuxarren.**

### OLATZAGUTIA Irristaketa.

Abiadura irristaketa Nafarroako Kirol Jokoen IV. jardunaldiaren indoor probak. Kategoria guztiak. **10:00etan, kiroldegian.**

### ALTSASU Duatloia.

Nafarroako Kirol Jokoen haur eta gazteendako Altsasuko Duatloia.

**Txioka ikastolako inguruan.**

**10:30 Benjaminak: 500 metro, 2 kilometro, 250 metro.**

**10:45 Kimuak: kilometro 1, 4 kilometro, 500 metro.**

**11:30 Haurrak: 2 kilometro, 6 kilometro, kilometro 1.**

**11:45 Kadeteak eta jubenilak: 2,5 kilometro, 8 kilometro, kilometro bat.**

### SATRUSTEGI Pintxo lehiaketa eta dastaketa.

Arakilgo pintxo lehiaketa eta dastaketa: musika, pintxoak eta giro ederra. Arakilgo Udalak antolatuta. Izena ematea: 634 584 226 telefonoan Whatsapp bidez edo [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) e-postan. **11:00etatik aurrera, plazan.**

### BAKAIKU Elkarretaratzea.

*Alarma Gorria – Goi tentsioko lineari ez elkarretaratzea.* **12:30ean, plazan.**

### ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

Joseba Zabala Salegiri *Egiaren garaia da!* omenaldi ekitaldia herritarrek antolatuta.

**12:30ean, hilerrian.**

### ETXARRI ARANATZ Bertso bazkaria.

Bertso bazkaria Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio bertsolariekin, Karriestu elkarteak antolatuta.

**14:30ean, Karriestu elkartearen.**

### ALTSASU Duatloia.

Biocer XIII. Altsasuko Duatloia: 5 kilometro korrikari; 20 kilometro txirindulan; 2,5 kilometro korrikari. Bakarka edo erreleboan. Sakanako Triatloi Taldeak antolatuta.

**15:45ean, Foru plazan.**

## ZORION AGURRAK



**Irati**  
Zorionak Irati! 6 urte ya, zenbat handitu zaren! Oso ongi pasa eguna! Asko maite zaitugu!



## JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



  
**@panesamayaogiak**

*Amaya*

OGITEGIA  
LURRI 1984 - 2024

**ALTSASU Txirrindularitza.**

Txirrindula gynkana: 7 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteendako bideratutako probak Burunda Txirrindularitza Taldearen eskutik, Zelandiko Guraso Elkartek antolatuta. **17:00etan, Zelandi ikastetxeko jolastokian edo frontoian.**

**ALTSASU Ihes gela.**

Landa Konexioaren *Erronka* escape room ibiltaria, Landa Nafarroa lotu kooperazio proiektuaren eta Gazte Agendaren barruan. **17:30etik 20:00era ordu erdiro, Intxostiapunta gazte gunean.**

**OLATZAGUTIA Antzerkia.**

*Oh Vino!* La Líquida teatro konpainiaren antzezlanaren emanaldia: Dioniso edo Baco ardoaren, dibertimenduaren eta antzerkiaren jainkoaren istorio mitikoaren bidez eta umorearekin kontatutako gizakiaren historia taularitzen du. Santiago Vokram Mago de Oz taldeko biolin jolearen parte hartzearekin. Sarrerak: alde zurretik, 6 euro; egunean bertan, 8 euro. **18:30ean, ardo dastaketa txikia; 19:00etan, emanaldia, kultur etxean.**

**IRURTZUN Proiektzioa eta solasaldia.**

Mendi jarduerak: Abriendo camino Arabia Saudi Uxue Loizu eta Maialen Rojo Alpinismoko Emakume taldeko kideen eskutik. Gaztelaniz. Sarrerak: 2 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

**ALTSASU Dantza ikuskizuna.**

Brodas Bros Bartzelonako dantza konpainiaren *Doji* dantza ikuskizuna. Sarrerak: 10 euro. **19:00etan, lortia kultur gunean.**

**LAKUNTZA Kontzertua.**

Delirium Tremens taldearen kontzertua. **Ate irekiera, 19:30ean; kontzertua, 20:00ean, kultur etxean.**

**IRAÑETA Elkarretaratzea.**

*Alarma Gorria – Goi tentsioko lineari ez elkarretaratzea.* **20:00etan, plazan.**

**ETXARRI ARANATZ Elkarretaratzea.**

*Alarma Gorria – Goi tentsioko lineari ez elkarretaratzea.* **20:00etan, plazan.**

**ALTSASU Elkarretaratzea.**

*Alarma Gorria – Goi tentsioko lineari ez elkarretaratzea.* **20:00etan, udaletxearen aurrean.**

**ALTSASU Kontzertuak.**

RPG 7, Hilketa eta DJ Filla taldeen kontzertuak. **22:30ean, gaztetxean.**

**IGANDEA 24****IRURTZUN Mendi irteera.**

Mendi irteera Mendi jardueren barruan: Iratxo, Arrantzaleen bidea, Trinitateko bidea (biaduktu parean), ireki berria den bidexka, saien behatokia, Haritz zaharra eta Irurtzun. **09:00etan, Iratxotik.**

**ALTSASU Txirrindularitza irteera.**

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: San Benito ermita, 54 kilometro. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

**ARBIZU Padel.**

Nesken padel txapelketa. Izena ematea: 626 115 452. **10:00etatik aurrera, Sakana Padelen (Utzubar, 3).**

**ALTSASU Txirrindularitza proba.**

L VX. Erramu Trofeoa junior mailako txirrindularitza lasterketa: 101 kilometro. Altsasu Kirol Elkartek antolatuta. **10:00etan, udaletxearen aurretik.**

**ETXARRI ARANATZ Herri kirolak.**

XXXVII. Nafar Herri Kirol Jokoen bosgarren jardunaldia edo finala. **10:30etik 14:00etara, Euskalerriari frontoian.**

**ALTSASU Kontzertua.**

Irati Bilbao jazz abeslariaren kontzertua, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak antolatuta Emakumeen Egunaren Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak antolatutako ekimenen barruan, musikan emakumearen irudia sustatzeko helburuarekin. Gonbidapenak: lortia kultur gunearen webgunean edo txarteldegian. **12:00etan, lortia kultur gunean.**

**ETXARRI ARANATZ Omenaldia.**

Joseba Zabala Salegi *'Basajaun' 27 urte poliziak erail zuenetik!* omenaldi ekitaldia, Jakik antolatuta. **13:00etan, plazan.**

**UNANU Elkarretaratzea.**

*Alarma Gorria – Goi tentsioko lineari ez Ergoienako elkarretaratzea.* **20:00etan, plazan.**

**ASTELEHENA 25****ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

**ASTEAZKENA 27****ALTSASU Jaialdia.**

Erresistentzia jaialdia: Harresi NafarOi eta Venganza & Perdon Fit Skins taldeen kontzertuak. Ondoren, DJ 2Hotz. Irabaziak Defentsa Komunitatearen Erresistentzia Kutxara bideratuko dira, Defentsa Komunitateak, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Printzak antolatuta. Sarrerak: 3 euro. **23:00etan, gaztetxean.**

**OSTIRALA 29****ALTSASU Gazte gunean.**

Bingoa. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

**BAKAIKU Tailerra.**

Basoaren inguruko tailerra, Aizti Ingurumen zerbitzuak eskainita. Izena ematea: 8 euro, 613 096 968 telefonoan. **11:00etatik 12:30era, beheko basoan.**

**IGANDEA 31****ALTSASU Txirrindularitza irteera.**

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Irañetako iturburura, 55 kilometro. **09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

**BAKAIKU Escape room.****ZINEMA****ALTSASU**

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

*Museoaren zaindaria* familiarteko euskaraz filmaren emanaldia. Igandea 24: 17:00

*Secretos de un escándalo* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. Igandea 24: 19:30

Astelehena 25: 19:00

*Tratamos demasiado bien a las mujeres* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. Osteguna 28: 19:00

Igandea 31: 19:30

Astelehena 1: 19:00

*Políticamente incorrectos* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. Osteguna 4: 19:00

Igandea 8: 19:30

*La Extorsión* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. Osteguna 11: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

*Hotel Royal* zineforum filmaren emanaldia. Igandea 24: 19:30

*Vincent debe morir* zineforum filmaren emanaldia. Osteguna 4: 19:00

Igandea 8: 19:30

*Mi camino interior* zineforum filmaren emanaldia. Osteguna 11: 19:00

AIZTIClue escape room formatudun ekintza, Aizti ingurumen zerbitzuak eskainita. Gehienez sei laguneko taldeak. Izena ematea: 10 euro, 613 096 968 telefonoan. **Elkartean. 10:30-11:30 Aixé (8 - 12 urte). 12:00-13:00 Trebe.**

**ALTSASU Gazte agenda.**

Gazte zinema. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

**ASTEAZKENA 3****ALTSASU Txirrindularitza.**

Itzulia Basque Countryren hirugarren etaparen amaiera. **17:45etan, Gartzia Ximenez kalean.**

**OSTEGUNA 4****ALTSASU Txirrindularitza.**

Itzulia Basque Countryren laugarren etaparen hasiera.

**13:30ean, Burundabide kalean**

**OSTIRALA 5****BAKAIKU Hitzaldia.**

Anfibioen inguruko hitzaldia, Aizti Ingurumen zerbitzuak eskainita. Izena ematea: 3 euro, 613 096 968 telefonoan.

**18:00etan, beheko basoan.**

**ALTSASU Gazte agenda.**

Billar express txapelketa.

**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

**LARUNBATA 6****ALTSASU Txirrindularitza irteera.**

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Langarika – Gazeo, 56 kilometro. **09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

**ALTSASU Ikastaroa.**

Lehen sorospenak ikastaroa. 14 eta 30 urte bitarteko gazteendako. Izena ematea: 693 47 81 91 edo [asociacion@micuadala.com](mailto:asociacion@micuadala.com) e-postan. Doakoa, makarronada barne. **10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.**

**ETXARRI ARANATZ Sakanako Etxera Eguna.**

11:00-12:30 Solasaldia: Jaione Karrera abokatuaren *Zer da salbuespenezko espetxe politika?* Nola eragiten die Sakanako presoiei?, kultur etxean.

12:30 Txozna irekiera eta musika, plazan.

15:00 Herri bazkaria, plazan: baratxuri zopa, arkumea txilindron erara, goxua eta kafea eta kopa. Aukera beganoa egonen da. Sarrerak: 20 euro, apirilaren 2ra arte, Xapatero eta Leku Ona tabernetan.

18:00 Txozna irekiera, plazan.

18:30 Patrice Dumora Watsonen kontzertua, plazan.

20:00 Eskualdeko mobilizazioa: Gi(It)za katea.  
20:30 DJ Bull eta taloak, plazan.  
23:00 OnkiXin, talde sorpresa eta DJ Bull.

#### LAKUNTZA Biltoki eguna. *Gaztetxean.*

12:00-14:00 Poteo, Kalba jokia eta auzatea.  
14:30 Bazkaria.  
18:00-20:00 Elektrokela Elektroxaranga.  
23:00 Kontzertuak: Irati 58, Kontralde eta Mehatxuka.

#### ALTSASU Txirrindularitza proba.

XXXVI. Altsasu Trofeoa kadeteen mailako txapelketa: 51 kilometro. Burunda Txirrindularitza aldeak antolatuta.  
16:00etan, Foru plazatik.

#### ALTSASU Antzerkia.

*Almacenados* Txalo produkzioen antzezlanaren emanaldia Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxagarekin: Erretreta hartzeko dagoen arduraduna eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak, ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den almazen huts batean. Sarrerak: 10 euro.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 7

#### ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Larrañeta mendi taldearen irteera: Etxarri – Ataun (Ubitarte Sagardotegia).  
08:00etan, Larrañetan.

#### ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Mirutegiko gurutzea, 53 kilometro.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

#### BAKAIKU Ibilaldia.

Bakaikuko landa eremutik ibilaldia. Aiziti ingurumen zerbitzuak eskainita. Gehienez sei laguneko taldeak. Izena ematea: orokorra, 12 euro; 12 urtetik beherakoek, 8 euro; 613 096 968 telefonoan.  
10:30etik 12:30era, elkartetik.

## ASTELEHENA 8

#### ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.  
12:00etan, udaletxearen aurrean.

## OSTIRALA 12

#### ALTSASU Gazte agenda.

Betiko jolasak.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

#### OLATZAGUTIA Literatura solasaldia.

Olaztiko irakurle taldea: *El silencio de las hayas* Mikel Alvira idazlearekin. Izena eman: liburutegian, 948 371 444 telefonoan edo *bibliola@navarra.es* e-postan.  
19:00etan, liburutegian.

#### ALTSASU Dantza ikuskizuna.


*Quosque Tandem Abutere* Zuk Performing Arts konpainiaren dantza ikuskizunaren mustutzea: Jorge Oteizaren obran oinarrituta, Itsaso A. Cano dantzari eta koreografoak Oteizaren unibertsoan, euskal konstruktibismoan eta 1963an saiakeran oinarritutako lana. Nafarroako Dantza Garaikidea programaren eskutik. Aurreko astean egoitza teknikoaren eginen du kultur gunean.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

ESKELA



## Iñaki Olmos Goikoetxea

Marxoaren 14an, 25 urte



Gurekin zaude Iñaki. Zure indarra eta ilusioa gurekin behar ditugu. Zu behar zaitugu. Gure bihotza, gure bizitza. Gure arima.

Maite zaitugu.

Igone, ama eta aita

ESKELA

## Iñaki Olmos Goikoetxea

"Gure ondotik joan zara, baina, betiko izango zaitugu bihotzetan"

Zure kuadrilla

ESKELA

## Iñaki Olmos Goikoetxea

Orain ere isilean joan zara, Iñaki, gugan guztiongan sekula ahaztuko ez dugun arrasto ozena utziz. Beti gurekin, maite zaitugu.

Olmos eta Goikoetxea sendiak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## "Betidanik"

☎ 948 19 70 70  
📍 @Grupolrache  
📱 Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

ESKELA

## Iñaki Olmos Goikoetxea

Akorde hauen atzean, elkar mañtatu eta zaintzean, hilezkorra gara.

Maite zaitugu, Iñaki

Izabaren etxeko ospakizunetan zu beti gurekin.




ESKELA

## Iñaki Olmos Goikoetxea

Gure etxeak itsatsita dauden moduan, horrela egongo zara betiko gure bihotzetan

Beatriz, Ignacio, losu eta Iñaki



ESKELA

## Iñaki Olmos Goikoetxea

Ahazten ez dena ez da sekula hilko

Zure kintoak



ESKELA

## Iñaki Olmos Goikoetxea

Zurekin pilotan aritu garen pilotariak eta Pilotajauku Kluba



OROIGARRIA

## Jesus Marin Gorriti

V. urteurrena  
(Uharte Arakilen hil zen 2019ko martxoaren 27an)

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Beti izango zara gure bihotzetan

Ebekeoak



## JAIOTZAK

- **Hegoi Mendinueta Gasanz**, otsailaren 27an Arbizun
- **Muhammad Brahim Laulad**, martxoaren 7an Altsasun

## HERIOTZAK

- **Andres Santano Duran**, martxoaren 13an Altsasun
- **Iñaki Olmos Goikoetxea**, martxoaren 14an Iturmendin
- **Juan Huarte Flores**, martxoaren 15ean Arbizun
- **Francisca Martinez de Soria**, martxoaren 20an Iturmendin
- **Julian Arguelles Cristobalena**, martxoaren 20an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75  
iragarki@guaixe.eus  
www.guaixe.eus/iragarkiak



## IRAGARKI SAILKATUAK

### HIGIEZINAK

#### SALGAI

**Pisua bajearekin salgai:** Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 telefonora.

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Sakanako Mankomunitatean Hondakin zerbitzuan peoi lanpostua betetzeko lan postea osatzeko lehiaketa oposizioa martxan:** Deialdian parte hartzeko Mank-ek eskola-ziurtagiria (edo baliokidea), B mailako gidabaimena eta B1 (ahozkoa) ezagutza izatea eskatzen du. Oposizioan parte hartzeko izena emateko epea martxoaren 27ko 14:00etan amaitzen da.

#### ENKANTEA

**Arruzakoko ostatuaren kudeaketa eramateko lehiaketa martxan:** Ostatuaren lizitazioa 7.800 eurokoa da (BEZ barne). Deialdian interesa duenak Uharte Arakilgo udalarekin eskaintza aurkeztu behar du apirilaren 4ko 14:00ak baino lehen.

### LEHIAKETA

**'Erdialde' euskarazko idazlan laburren 17.**

**lehiaketa:** 6 urtetik gorako haurrei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo da lehiaketa, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3.zbkiko egoitzan edo [erdialde.euskararenlagunak@gmail.com](http://erdialde.euskararenlagunak@gmail.com) posta elektronikora idatziz. Oinarririk <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2024ko maiatzaren 18an banatuko dira, Miranda de Argan izan den *Euskararen eguna* ospakizunean. Irabazleei aldez aurretik abisatuko zaie.

**Memeka gazteendako meme lehiaketa martxan:** Memeak sortuz gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko, 15-18 urte bitarteko nerabeei zuzendutako lehiaketa. Memeak sortzeko [memeka.eus](http://memeka.eus) plataforma erabili behar da, gaia librea da baina memeean txertatutako diren testuak euskaraz idatziak egon beharko dute. Bi sari egongo dira; webgunearen bidez bozka kopuru gehien jasotzen dituen memearentzat 200 euro eta Memekako Instagram

eta Pixelfed kontuetan like kopuru gehien jasotzen dituenarentzat 150 euro. Memeak aurkezteko epea apirilaren 21ean amaitzen da. Informazio gehiago [www.azkuefundazioa.eus](http://www.azkuefundazioa.eus) eta [www.iametza.eus](http://www.iametza.eus) web orrietan.

### IKASTAROAK

**Euskal dantzak tailerra**  
**Olaztin:** Euskal dantzak ikasteko gogo duen edozein gazte eta helduri zuzendua. Ostiraleroko 17:00etatik 18:30era Sutegi Kirodegian, apirilaren 12tik ekainaren 28ra. Dohainik!!

**Altsasun gazteendako 'Muralismo parte hartzailea' tailerrean izena emateko epea zabalik:** Tailerra apirilaren 19, 20 eta 21ean egingo da, 17:30tik 20:30era Intxostiapunta Gaztegunean. Izena emateko deitu 948 564 785 telefonora edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidera idatzi.

### OHARRAK

**Sakanako Etxera eguneko bazkarirako txartelak salgai:** Sarek antolatutako Etxera eguna Etxarri Aranatzan egingo da, apirilaren 6an. Baz-

karirako txartelak Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai 20 eurotan. Bazkaria plazan izango da, 15:00etan.

**Olaztin egur lotea jasotzeko izen ematea zabalik:** Herri basotik egur lotea atera nahi dutenek, aurretik izena eman beharko dute udalarekin, bulego ordutegian, 09:00etatik 14:00etara, izena emateko epea apirilaren 17an despidituko da. Egur loteak 25 euro balio ditu, horietatik 10 euro izena emateko unean pagatu beharko dira.

**Sakanako Mintzakide taldeak:** Altsasun astelehenerako 10:00etan liburategian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraleroko 09:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraleroko, 17:00etan liburategian, Etxarri Aranatzan ostiraleroko 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun astearte eta 16:30etan kirodegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatutako elkartearen eta lurtzunen astelehenerako 18:30etan Iratxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiraleroko 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

**Lakuntzako Udaleren informazioa jasotzeko WhatsApp kanal berria:** WhatsApp aplikazioaren bitartez herrian barna dauden iragarki taulen etab-en informazioa jaso ahal da hedapen zerrandaren bitartez. Gogoratu dute ez dela udalarekin harremanetan jarzteko kanala izango eta ez direla mezuak erantzun, informazioa jasotzeko bakarrik izango da. Horretarako 672 778 598 telefono zenbakia zure kontaktuen agenda gorde beharko duzu eta ALTA hitza bidali WhatsApp bidez berriak jasotzen hasteko. Emandako datuen tratamenduari arduraduna Lakuntzako Udala izango dela gogoratu du.

**Bertsio Udalekuetan gazteendako izen emate epea zabalik:** Apirilaren 17ra arte izena eman daiteke. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) [www.bertsiozale.eus](http://www.bertsiozale.eus) web orrian, 943 694 129 zenbakira deituz edota [aisialdia@bertsozale.eus](mailto:aisialdia@bertsozale.eus) helbidera idatziz.

**Patxi Bisquerten 'Onbuen itzala' filma bukatzeko diru ekarpenak:** Otaño bertsoari-poetaren bizitza eta obrari buruzko filma bukatzeko diru ekarpenak

egitera animatzen zaituztegu: <https://www.verkami.com/projects/37275-ombuaren-itzala> webgunearen bitartez egin daitezke edo egilearekin harremanetan jarri eta kontu korrontearen zenbakia helaraziko dizue: [pmirenabisquert@hotmail.es](mailto:pmirenabisquert@hotmail.es) emailera idatziz edo 687 841 313 telefonora deituz. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://pellomario-tañoauzolana.eus> webgunean.

**UEMA udalekuetan izena emateko epea zabalik:** Gazteendako salto! Udaleku ibiltariak Arantza, Elizondo, Doneztebe eta Oronoz-Mugairitik pasatuko dira, herri bakoitzean bi gau pasatuko direlarik. Bi txanda daude garagarriaren 24tik garilarren 2ra eta garilarren 4tik 12ra. 2006 eta 2009 urteen artean jaiotako gazteei zuzenduta, matrikulak 150 euro balio du. Izena emateko epea marboaren 31an amaitzen da. Informazio gehiago eta matrikulazioa [www.uma.eus](http://www.uma.eus) web orrian, 943 816 699 telefonora deituz edota [administrazioa@uma.eus](mailto:administrazioa@uma.eus) emailera idatziz.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)



Delirium Tremens taldeko gaur egungo kideak. MAUKA

# Hiru hamarkada pasatu ez balira bezala

Delirium Tremens taldearen kontzertua izanen da bihar, larunbata, Lakuntzako kultur etxean. Iñigo Muguruzaren omenaldi kontzertuan "sabelan zerbait piztu", eta hiru hamarkadako etenaren ondoren eszenatokietara itzuli zen taldea

## E.R. B. LAKUNTZA

Delirium Tremens musika taldea 1980ko eta 1990ko hamarkadetan Euskal Herriko rock talde erreferente izan zen. Hiru hamarkadako etenaren ondoren, 2022an, taldeak 35 urte bete zituen, oholtzara itzuli zen eta disko berria kaleratu zuten: *Hordago*. Bihar, martxoak 23, larunbata, talde mitikoa Lakuntzako kultur etxean izanen da. Kontzertua 20:00etan hasiko da, eta ate irekiera ordu erdi lehenago izanen da, 19:30ean. Sarrerek aurretik Ogi Berrin eta Lakuntzako Udaleko webgunean eros daitezke, 12 eurotan, eta egunean bertan ate irekieran 15 eurotan.

"Gazteak ginen eta ez genekien ondo non sartzen ginen eta nola joango zen. Beste gazte asko bezala, gure potroengatik talde bat egin eta hortik aurrera bukaera arte". Andoni Basterretxea Delirium Tremens taldeko abeslaria da, eta taldearen hasierak gogoratu ditu. 1991ko azaroaren 30ean eman zuen taldeak garai

hartako azken kontzertua. Bost urtetan lau disko kaleratu zituzten: *Hemen denak berdina dira* 1987an, *Ikusi eta ikasi* 1989an, *Hiru aeroplano* 1990an eta *Bilbo Zuzenean 91-5-24*, ordura arte agur diskoa zena. "Bidea oso polita izan zen, eta ezin hobeto pasa genuen. Oroitzapen polit asko tartean, baina agian politena taldea uzterakoan denok lagun on bezala bukatzea izan zen, agur eder bat eskainiz".

## Itzulera

2019ko irailean Iñigo Muguruz taldeko kide izandako hil zen, eta urte horretako abenduan egin zen kontzertu omenaldi batera gonbidatu zituzten taldekideak: "Han parte hartu eta

**"ZUZENKO POLIT ETA POTENTEA EGITEN SAIATZEN GARA, AHAL DUGUN GUZTIA EMATEN DUGU"**


dirudienez sabelean zerbait piztu, eta berotu ginen. Pare bat hilabete eztabaidatu eta gero bueltatzea erabaki genuen". Presarik gabe eta kantur berriak tartean zirela bueltatzea erabaki zuten, "segidan pandemia sartu zen...".

Azkenean, 2022. urtean, taldeak 35 betetzen zituen urtean, itzuli zen eszenatokietara. "Polita izan da. Lehenengo kontzertu ofiziala BECen eman genuen, jende pila baten aurrean, eta hemen gabiltz oraindik batera eta bestera". Bihar, esaterako, Lakuntzan izanen dira. "Gure kontzertuek ez daukate itzeleko berezitasunik, gure aurpegiak ezik...". Zuzeneko "polit eta potentea" egiten saiatzen direla esan du Basterretxeak, "argiak eta soinua ahaztu gabe, ahal dugun guztia ematen eta ondo pasatzeko, jendeak gurekin ondo pasa dezala". Bestela, Delirium Tremens taldearen kontzertuak nolakoak diren eza-gutzeko modu hoberena, "etorri bihar eta ikusi!".



## Txistularien kontzertu handia

Lau urteren ondoren itzuli zen Burundar Txistulariak taldea lortia kultur guneko oholtzara. Besteak beste, Ismael Yague Atarrabiako gitarra bakarlarik, Flores ahizpek, metalezko instrumentuak eta dantzariak parte hartu zuten. Maria Teresa Azpiazu *Amama Tere* eta Alfonso taldeko tronpeta jolearen amona omendu zuten; Gernikako bonbardaketaren lekukoa izan zen Teresa.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

## Gure eskutik



Berdin dit.  
Eguzkia berriro ez ikusten.  
Negua betiereko bilakatzea.  
Zeruko urdina ez ezagutzea eta euriak ez bustitzea.  
Aspaldi ez dakit zutaz, eta dena emango nuke zu berriro bizitzeko.  
Loratuko den udaberria beste behin ere maitatzeko.



Mari Cruz Larrañaga eta Regina Urrestarazu bakaikuarak San Benito ermitan.

cipe de Vianakoak etorri ziren eta esan zuten balorerik ez zutela. Baina gauza bat eta beste, azkenean ez eraberritzez ez pinturarik, desagertu direlako; eta ermita pixkanaka erortzen ari da.

### 10 Zuek ermitaren zaindariai zarete?

Regina ibiltzen da gehienbat. Aitaren lana jarraitu zuen. Bestela, ez du inork jarraitzen.

### 11 Zergatik ospatzen da Bakaikun San Benito?

Hor Iturrun zegoen, desagertu-tako herrixka bat. Bidea egiteko obretan hezurak agertu ziren. Herrixka desagertzean, San Benitora joateko ohitura mantendu zen.

## "Lapikoak ermitaren kontra botatzen genituen"

Udaberriaren hasierarekin ospatzen dute Bakaikun San Benito eguna. Ohitura asko aldatu dela esan dute Mari Cruz Larrañaga Ondarra eta Regina Urrestarazu Fernandez bakaikuarrek, eta txikitan nola ospatzen zuten gogoratu dute

**Erkuden Ruiz Barroso** BAKAIKU

### 1 Herriko gauzak ezagutzea gus-tatzen zaizue, ezta?

Bai. Hemen jaio eta bizi gara, eta herriko gauzak gustatzen zaizkigu. Bizi izan duguna. Hemen gertatutako gauzen inguruan irakurtzea gustatzen zaigu. Al-daketa izugarria bizi izan dugu. Horregatik ere duela urte batzuk liburu bat idatzi zuten ohiturak nolabait kontserbatzeko.

### 2 Noiz da San Benito?

Martxoaren 21ean.

### 3 Udaberriaren etorrera ospatzen da San Beniton?

Mezaren ondoren soroak bedeinkatzen dira, bai.

### 4 Nola ospatzen zen lehen?

Haurrak arratsaldean, eskolaren ondoren, etxetik buztin lapikoak hartzen genituen. Garai horretan buztin lapikoak zeuden bakarrik, eta zertxobait pitzatu egiten zirenean, alanbrearekin lotzen ziren. Baina dagoeneko

oso erreta edo apurtuta zeudenean, ezin zirenean gehiago erabili, San Benito egunerako gordezten ziren.

### 5 Eta zer egiten zenuten lapikoe-kin?

Arratsaldean hartzen genituen eta ermitaren hormara botatzen genituen. Arratsalde pasa joaten ginen ermitara. Bertan San Benito errekatxoa pasatzen zen, eta burukotxaleak bilatzera joaten ginen. Orain ez ditugu aurkitzen. Hosto berde batzuk ziren, eta oso gustura jaten genituen. Garai horretan ez genuen goxokirik, eta goxokiak bezala ziren guretako.

### 6 Ohitura galdu zen?

Bai, orain ez doa inor.

### 7 Noiz galdu zen?

Gure belaunaldia azkena izan zela esan daiteke. Gu heldutzen joan ginen heinean galduz joan zen. Gu izan ginen azkenetari-koak. San Benito saildu pobrea zela esaten zuten, ez zuelako

ardorik ere ematen. Orduan, udala ardoa eta gazta eramaten hasi zen eta auzatea egiten hasi zen. Orain bai, baina egon zen garai bat ezer ez zela eramaten.

### 8 Orain nola ospatzen duzue San Benito?

Ermita apaintzeko loreak eramaten ditu Reginak, meza egiten da eta gero soroak bedeinkatzen dira. Ondoren, auzatea egiten da.

### 9 Nolakoa da ermita? Non dago?

Ermita Bakaikutik bi kilometro ingurura dago, Iturmendiko mugatik gertu. Oinplano laukizuzenekoa da, eta leiho txiki bat du. Barruan San Benitoren irudia dago, XVII. mendekoa. Duela zenbait urte eraberritzeko lanak egin behar ziren, momentuan zegoen apaizak eskatuta. Ermitaren barrualdean aingerutxo batzuen aurpegiak eta beste margo batzuk zeuden, eta esan zuten balore handikoak izan zitezkeela. Batzuk baietz beste batzuk ezetz, apaizak obrak gelditzea eskatu zuen, eta Prin-

**gk**  
DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

*Behar duzun guztia*

SARE  
DISEINUGRAFIKOA SOZIALAK  
MAKETAZIOA KARTEL  
PAPER GINTZA  
IAK KOMUNIKAZIOA  
IRUDI KORPORATIBOAK  
K EGUTEGIAK AGENDA  
ROLL-UP  
PEGATINA  
URUAK  
ANDIKO  
ARRIAK  
KARRIAK  
LETINAK  
BISITA  
A TXARTELAK  
KAZIOAK  
LAK AK EA

**BAZKIDEEK  
DES  
KON  
TU  
BEREZIAK**

**fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Añsas  
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus